AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

739

123/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Sabino Sarrionaindia Azaola jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Galdakao-Usansolo Ospitaleko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 7ko 1484/1995 Ebazpenaren bitartez, Sabino Sarrionaindia Azaola jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Galdakao-Usansolo Ospitaleko Erizaintzako zuzendaria izendatu zen (1996ko urtarrilaren 17ko EHAA, 12. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Sabino Sarrionaindia Azaola jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Galdakao-Usansolo Ospitaleko Erizaintzako zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Galdakao-Usansolo Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.